

UNITATE DIDAKTIKOA

DENA EZ DA FUTBOLA NO TODO ES FÚTBOL

EUSKAL HERRIA ETA VENEZUELAKO HAURREK EGINDAKO FILM LABURRA
CORTOMETRAJE REALIZADO POR NIÑ@S DEL PAÍS VASCO Y VENEZUELA



COPRODUCCIÓN VASCO-VENEZOLANA



EUSKAL-VENEZUELAR KOPRODUKZIOA


Ekizlea/Producción: KURKULUKETAN ELKARTEA

Gidoigintza, zuzendaritza eta errealizazioa/Guión, dirección y realización: Rita Naveira, Koldo Zelestino

Venezuelako koordinazioa eta talde lana/Coordinación y Realización de Venezuela: Norma Courlaender, Alfredo Medina, Edward Guanipa

Protagonistak: Alaitz Zelestino, Jose Alejandro Jiménez, Iratxe Bernaola.

Venezuelako jatorrizko musika/Música original por Venezuela: Massimo Richiusa



Genero berdintasuna:

Neska eta mutilak berdinak gara kirolean? Aukera berdinak ditugu? Komunikabideek berdin tratatzen gaituzte? Publikoak berdin ikusten gaitu? Ikusiko dugu...!!

- Esan bost futbolari mutilen izenak, nongoak diren eta zein taldean jolasten duten. Ondoren, esan bost futbolari nesken izenak, nongoak diren eta zein taldean jolasten duten.
- Hartu kirol egunkari edo aldizkari bat eta begiratu zein orrialdean agertzen den nesken kirola. Aztertu eta hausnatu zergatik gertatzen den.
- Zure herriko kirol taldeei ematen zaizkien ekipazioa, azpiegitura, dirulaguntzak, etab., berdinak dira, neska edo mutilak izanik?
- Neska eta mutilentzako kirolak edota aktibitateak berdin eskaintzen zaizkie edo bereizketa egiten da, esate baterako, futbola, rugby... mutilentzat; eta igeriketa sinkronizatua, gimnasia erritmikoa... neskentzat?

Berdintasuna eta justizia:

Inkesta. Ea asmatzen duzun. Aukeratu bat:

- Emakumeek Joku Olinpikoetan parte hartu zuten lehengo aldiz, 1.850. urtean
 - Emakumeek Joku Olinpikoetan parte hartu zuten lehengo aldiz, 1.900. urtean
 - Emakumeek Joku Olinpikoetan parte hartu zuten lehengo aldiz, 1.930. urtean
- Euskal Herriko haurren portzentaia eskola kirolan horrela dago banatuta:
neskak: %70 mutilak: %30
 - Euskal Herriko haurren portzentaia eskola kirolan horrela dago banatuta:
neskak: %10 mutilak: %90
 - Euskal Herriko haurren portzentaia eskola kirolan horrela dago banatuta:
neskak: %40 mutilak: %60

* erantzunak azkenengo orrian

Hainbat futbolarien soldatak astronomikoak diren bitartean.....

- Egunero 18.000 haur hiltzen dira gosez.
 - Egunero 5.000 haur hiltzen dira gosez
 - Egunero 40.000 haur hiltzen dira gosez
- 30.000 haurrek ez dute oinarrizko heziketarik jasotzen munduan.
 - 100.000 haurrek ez dute oinarrizko heziketarik jasotzen munduan
 - 30.000.000 haurrek ez dute oinarrizko heziketarik jasotzen munduan.
- 5 eta 14 urte arteko 2 miloi haurrek era ezberdinetako zapalkuntza jasaten dute
 - 5 eta 14 urte arteko 15 miloi haurrek era ezberdinetako zapalkuntza jasaten dute
 - 5 eta 14 urte arteko 150 miloi haurrek era ezberdinetako zapalkuntza jasaten dute

Rol ezberdinen inguruko eztabaidak:

Ikasgela osoa biko taldetan banatzen da, ahal delarik, neska eta mutil bikoteak osatuz. Hiru egoera planteatuko dira; egoera bakoitzean bi pertsonaia agertuko dira eta bakoitzak pertsonaia baten rol-a bete beharko du 10 minutuz. Egoera bakoitzaren ondoren, paper batean ondorioak idatziko ditugu. Hiru egoeretatik pasatu ondoren, gela osoa batuko da eta sortutako ideiak, iradokizunak eta iruzkinak mahaigaineratuko ditugu. **EGOERAK HAUEK DIRA:**

Mutilen arteko futbol partida bat hastear dago. Jokalariak jadanik zelaian aurkitzen dira, baina aldagelatik arbitroa irteterakoan, publikoko batzuk konturatzen dira epailea emakumea dela. Hori dela eta, gizon batzuek protestatzen dute, haien ustez, emakume-arbitroak ez omen daukalako mailarik ezta nortasunik horrelako partida bat zuzentzeko. Beste batzuek aldiz, ez dute horrela pentsatzen. 10 minutuz, bakoitzak bere argudioak eman eta defendatu beharko ditu.

Kirol talde batean pertsona bat behar da arropaz arduratzeko, alegia, arropa garbitu behar da eta apurtutako edo urraturiko galtzerdiak josi egin behar dira. Orduan, mutil batek hori guztia egiteko prest dagoela esaten du, baina beste mutil batek ihardesten dio honako hau esanez: “hori ez da gizonezkoen lana, hobe legoke neska batek egingo balu”. Defendatu bakoitzak bere iritzia.

Orain dela gutxi, futbol entrenatzaile izateko titulua atera du neska batek eta egunkari batean, iragarki bat irakurtzen du entrenatzaile bat behar dela esanez. Poz pozik, klub horretara abiatzen da, baina emakumea dela ikusten dutenean, ez diote lana ematen. Zer esan dezake bakoitzak bere jarrera defendatzeko?

Berbategia:

Ikasleek prentsan edo ikastetxean agertutako izenburuak, iragarkiak, adierazpenak, esamoldeak... bilatuko dituzte. Halaber, futbol partidetan entzundako esaldiak apuntatuko dituzte, eta ondoren:

- a) aztertuko dituzte, ikusteko zer nola tratamendua ematen zaien emakumeei eta gizonei.
- b) esaldi edo adierazpen matxistak topatzen badituzte, beste hitzak eta adierazpenak proposatuko dituzte aurrekoak ordezkatzeko.
- c) denon artean, berdintasunezko esaldiak proposatuko ditugu gure ikasgelako horman ipintzeko.

Gatazken gainerik adiskidetasuna egon daiteke?

1. ARIKETA:

Bi pertsonen ondoko antzezpena prestatu eta egin beharko dute: haien artean borroka egiten dute, batek futboleko jolastu nahi duelako eta besteak saski-baloian aritu nahi duelako bere lagunekin. Kasu honetan, lekuagatik borrokatzen ari dira. Horretarako, bakoitzak bere trikimailuak eta "armak" erabiltzen ditu: trufatzea beturrekoak eramateagatik, lodia izateagatik, irakaslearen "pilota" izateagatik... Gainontzeko ikasleak begirale gisa egongo dira, zer gertatzen ari den behatzen. Amaitutakoan ondorengo galderei erantzun beharko diete:

- Zein da arazoa?
- Zer sentitu zenuen? Zergatik haserretu zinen?
- Zergatik esan zenion esan zeniona?
- Zelan konpon zitezkeen arazoa beste era batean?

Amaitzeko antzerkitxo berririko antzetzuko dute baina beste irtenbide bat bilatuz (gauzak esanez, irain gabe eta erasotu gabe)

2. ARIKETA:

Gatazka mota ezberdinak egon daitezke gure inguruan. Horregatik, ikasleei esango diegu, astebetean, apuntatzeko detektatuko dituzten gatazka guztiak. Aste hori pasatu ondoren, denon artean, sailkatuko ditugu eta aztertuko ditugu:

Balio Gatazkak: pertsonen balio eta sinesmenekin lotuta daudenak

Harreman Gatazkak: pertsonen arteko harremanekin lotuta

Interes Gatazkak: arrazoi materialengatik (dirua, denbora, gauza zehatzak,...) edota lortzeko eragatik

Egitura Gatazkak: senideen arteko gatazkak, botereen arteko ezberdintasunak,..

Berdintasunaren dekalogo:

Guztien artean eztabaidatu eta proposatu beharko dute zer nolako konpromisoak hartuko dituzten ikasgelan pertsonen arteko berdintasuna sustatzeko. Horretarako, lehenik eta behin, azaldu beharko dute zer den haien ustez berdintasuna eta nola azalarazten den.

Ondoren, hamar puntu inportanteenak azpimarratuko dituzte, alegia, hamar ekimen, eta horrekin panel bat egingo dute ikasgelan zintzilikatzeko.

Hilabetero, hartutako konpromisoen segimendua egingo dute.

Hitz egin dezagun filmari buruz:

HELBURUAK:

- Sexu eta generoagatik sortutako bazterketa egoerak identifikatzea eta aztertzea.
- Filmean agertzen diren balioak identifikatzea.
- Gaur egungo kiroletan neskek daukaten garrantziaz hausnartzea.



BALORAZIOA:

1. **Teknikoki:** eszenak ulertu dira?. Elkarrizketak ulertu dira? Irudiak, argiak izan dira?. Musika ondo zihoan eszenekin?. Aktoreek ondo interpretatu dute? Naturaltasunez egin dute? Filmaren iraupena egokia izan da?.
2. **Edukiaz:** Zein zen gaia?. Norekin identifikatu zarete? Ikusitako egoerak zuen inguruan ezagutu dituzue?. Antzeko egoerak sortu dira? Neska eta mutilen futbola eta kirola orokorrean berdintasunean daude?.
3. **Aukeratu eszena bat:** Zer pertsonaiak agertzen dira?. Non daude?. Zer transmititu nahi digute eszena horretan?

Genero eta Rolak:

Lau pertsonen osaturiko taldeak egingo ditugu; bakoitzak pertsonaia bat antzetzuko du. Haietariko bat dantzari izan nahi duen mutil bat izango da edo suhiltzaile izan nahi duen neska bat. Beste hirurak gurasoak eta anaia/neba nagusia izango dira.

Gurasoek gaztearen nahiaren kontrako jarrera defendatuko dute baina anaiak/nebak, aldiz, defendatuko du.

Eztabaida amaitutakoan, ikasgela osoa batuko da eta ondorengo azalduko dute:

- Gurasoak: Beraien paperetan zelan sentitu diren; esaten zutenarekin ados zeuden ala ez; eroso sentitu diren,...
- Anaia/neba nagusia: Ea ados zegoen anaia/ahizpa defendatzen zuenean; gurasoek emandako azalpenekin ados zegoenez aukeratu nahi zuen lanbidea debekatzen ziotenean,....
- Haurra: Zer sentitu duen gurasoek debekatzen ziotenean berak aukeratu nahi zuen lanbidea; zer nola erreakzioa eduki duen, ..
- Beste ikaskideak: Uste duzue gizon eta emakumeentzako lanbideak daudela?. Zergatik?

Beste kultura batzuetara hurbilduz...

Ikasgela lau pertsonen osaturiko taldetan banatuko da. Talde bakoitzak munduko zonalde edo nazio bat aukeratu ondoren, bertako bizimodua azaldu beharko dute. Horretarako, toki horretan egondako norbaiten esperientziaz edota bertan bizi den norbaiten senideren baten laguntzaz kontatu ahal da.

Halaber, toki horietara egindako bidaietaz gain, liburuak, aldizkariak, dokumentalak, etab. erabil ditzakegu informazioa lortzeko. Helburua zera da: beste lekuetako kultura, ohitura, paisaia eta bizimoduen datu eta irudiak topatzea, nolabait, Lurraren beste tokietan bizi diren pertsona horien egunerokotasuna irudikatzeko (nondik bizi diren, zer hizkuntzak erabiltzen dituzten, zelakoak diren haien etxeak, nola antolatzen diren, etab.).

Ondoren, argazkiak eta irudiak kartoi mehe batean itsatsiko dituzte eta lortutako informazioari buruzko iruzkinak idatziko dituzte. Segituan, talde bakoitzak bere lana aurkeztuko du. Aukera balego, oso interesgarria izango litzateke leku horietako jendearekin harremanetan ipintzea.

Dramatizazioa:

MIMOA:

- A) Kirol bat aukeratu: egoera sexita edota biolentoa. Adierazi ezazu bi amaierekin: Desegokia eta egokia.
- B) Binaka ipinita: kirol bat adierazi ea besteek asmatzen duten.

SKETXA:

- Kirol berri bat asmatu (taldeka), eta ondoren besteen aurrean aurkeztu.

Kontadazu ipuin bat:

Ipuin bat asmatu beharko dugu genero berdintasunean edo adiskidetasunean oinarrituta. Apaintzeko, marrazki bat egingo dugu ipuinarekin lotuta.

- Ondoren, gure ikaskideen aurrean irakurriko dugu eta haien iritzia eskatu-ko diegu.
- Ipuin guztiekin liburu bat egingo dugu.
- Eta animatzen bagara, ipuin bat edo bi aukera dezakegu eta eszenan ipini (dramatizatu).

Irratsaioa:

Ikasgela taldetan banatuko dugu irratsaioaren zati ezberdinak prestatzeko:

- Hasiera, bitarteko eta amaierako musika.
- Istorio txiki bat prestatu, ondoren eztabaida bat antolatzeko (batzuk alde eta beste batzuk kontra).
- Iragarkiak.
- Elkarrizketa pertsona batekin edo birekin.

ONDOREN, IRRATSAIOA
BESTE IKASGELETAN
EMITITUKO DUGU.

Bertsolaritza:

Bila itzazu adiskidetasuna edo berdintasunari buruzko bertsoak (nork idatzi zituen, noiz, zer adierazi nahi duten...)

Egin ditzagun gure bertsoak: Aukeratu gai bat edo egoera bat genero gatazka-ekin lotuta eta egizu bertsoa, neurria eta soinua aukeratuz. Azkenik, batu itzazue bertso guztiak eta egin ezazue liburu bat.

Marrazketa:

Aukeratu balio bat edo pelikularen eszena bat eta marrazki baten bidez adierazi zer esan nahi duen balio horrek.

Ikastetxe edo auzoko horma batean marraztu ezazue giza balioei buruzko mural bat. Errealista edo abstraktua izan daiteke... gehien gustatzen zaizuen!



* Berdintasuna eta justizia
enketaren erantzunak:
1. b
2. c
3. a
4. c
5. c